

I. Omaetxebarriaren *Euskara barrutik. Estudios de lingüística vasca* liburuaren aurkezpena Gernikan

Ignazio Omaetxebarria Gernikako semea (1909-1995), fraide frantziskotarra, da goiko izenburuaz gaur aurkezten den liburu honetan jaso den idazlan bildumaren egilea. Eta beronen gai ardatzekoa, euskal linguistika edo hizkuntzalaritza.

Paulo Agirrebaltzategi jaunari zor diogu, egilearen artikuluak, hor-hemen argitaratuak, argitara gabeko bat edo beste, eta hil ondoren bere gelan utzi zituen esku-paper solteak bildu, gaika edo azpigaika sailkatu, oharrez eta erantsiz hornitu, eta morda berean eskaini izana.

I. Omaetxebarriaren lanak zer irabazi duen horrekin? Zertan duen gainbalioa? Hizkuntzalaritzaz idatzi zuen garaukako lanak, bere osoan beste neurri bat, beste dimentsio bat hartzen du. Eta guztiok ohartuko gara behingoan, zelako hizkuntzalari handi bat geneukan euskaldunok geure artean, geu ohartzeke, euskara bera erdi isilpetua zegoen aldi ilunetan, gerraosteko eta diktadurapeko aldikada luze ilun horretan.

Euskaltzaindiarentzat ohore handia, bestalde, *Euskaltzainak* bilduma honetan leku egitea, 26. zenbakiaz, euskarari egin zizkion ekarpen ederren lekuko eta oroimen gisa. Gure ikertzaileak 40gn hamarkadaren azken urteetarik 60ko hamarkadaren erdi ingurura artekoa du aldirik emankorra euskal hizkuntza gaietan, baina lan banaka batzuk 70eko eta 80koak ere badira. Eta azken aldiko lanok, berriz, Akademiaren *Euskera* aldizkaria izan dute agerleku.

Gaurko gernikarrentzat ezaguna da *Omaetxebarria* abizena, eta abizen horren jatorria ere bai ziurrenik: Oma ibarreko (Kortezubi) *Etxebarria(a)* izeneko etxeren baten izena. Baina Ignazio bera ez da horren ezaguna. I. Omaetxebarriaren azterrena urruntxo eta lauso gelditzen da gaurko gernikarrentzat. Gaur egunetik ikusita, aspalditxoko gizona dugu, euskal hizkuntzazko edo bestelako gaietan idazle handia eta emankorra izana gorabehera.

Ignazio 1909an jaioa zen. Harrezkero mendea eta ia 7 urte igaroak dira. Orduko sasoiari, Gernikako etxe oneko gaztetxoak, mutikoak, Agustindarren ikastetxera bidaltzen zituzten batxilergoa ikastera. Agustindarren Ikastetxean egin zituen bere lehen eta bigarren ikasketak, esaterako, Jose Basterretxea “Oskillaso” euskal idazle ezagunak, Ignazio baino bi urte gazteagoa zenak. Baina Ignazio ez zuten Agustinoetara bidali, ezpada frantziskotarrek Foruan zuten Prezeptoria Serafikora. Han ikastaro bi osatu zituen eta, antza denez, han sortu ei zitzaion misio-zaletasuna, eta fraile egiteko gogoia. Handik segituan Arantzazuko Ikastetxera sartu zen, eliz ikasketak egiteko asmoaz.

Hala bada, Gernikan urte gutxi eman zituen. Ignazioren familia ezaguna izango zen orduko Gernikan, baina Ignazio bera ez, honen anaia Kruz bezala. Frantziskotar habitua 1924an hartu zuen, profesio sinplea hurrengo urtean eta profesio nagusia 1930ean. Handik lastertxora, 1931an, bizimodua guztiz aldatuko zitzaion Errepublikaren etorrerarekin. Beste ikaskide batzuekin batera Alemaniara bialdu zuten, goi ikasketak osatzera. Alemaniako orduko Turingian, Fulda hirian aurrera egin zuen ikasketekin, eta 1932an apaiztu zen.

Artean bazeukan euskaltzaletasuna barrena sartua. Berberak aitortzen du, hara orduko hasia zela euskal deklinabideaz eta aditzaz material batzuk atontzen, seguruenik bertako ikasleei euskara eskolak emateko. Baina Alemaniako egotaldi horretan, teologiaz gainera, hizkuntzalaritza ikasten ere ekin zion, Erdi European nagusi ziren hizkuntza-konparaketa joeren bidetik ziurrenik. Fonetika-fonologia gaien ezaguera sakona beregandu zuen, autodidakta erara ikasirik. Aldi horretan eta aurreko mendetik han izan ziren

euskara-ikertzaileen ezagupide hurbila ere han egingo zuen: W. Humboldt-ena ere bai agian, baina batez ere denboran hurbilagoa zuen Hugo Schuchardt-ena.

1935erako Arantzazun dugu berriro. Bere anaia Kruz-en meza berriko sermoia berak egin zuen urte horretan Urteberri egunean. Handik gutxira Arantzazuko teologia-ikasleei Elizaren Historia ikasten jarri zen. Hau ere ohartzeko puntua, zeren Historia izango du gerora Ignaziok bere ikas eta iker eremu hurbilenetarikoa. Elizaren historiak gainera, mundu klasikoarena zein Erdi Arokoa edo oraintsuagokoa. Historian ikertzeak dokumentazio fondoetan eta agiri zaharretan murgiltzera zuzenduko zuen. Eta hizkuntza diferenteak menderatzea, aldi berean. Horrela, aditu bihurtu zen izkribu eta agiri zaharrak irakurtzen, interpretatzen eta bere ikerlanetara ekartzen.

Horrek asko erraztuko zion bidea, euskal hizkuntzaren alderdi historikoan murgildu zelarik, zaletasun berezia hartzera antroponimia eta toponimia gaietara, hau da, euskal gizaki historikoen izena eta izana sakonetik ezagutzera.

Euskara eta historia uztartzea zuen lehia biziatariko bat. Alde horretatik, euskal gramatikaz ari denean ere, diakroniara joko du behin eta berriro, deklinabide gaietan ere bai, baina batez ere aditzaren paradisu erakargarrian. Lexikografiak ari dela ere etimologiarako joera nagusituko zaio. Eta beti ere beste hizkuntzekin, berariaz, euskararen inguruko hizkuntzekin, garaiko edo antzinakoekin, konparazioak egiteko joera ageri-agerian izango du.

Omaetxebarriak berezko dohaina erakutsi zuen hitzen arteko, izenen arteko erlazioak eta kidetasunak bilatzeko, eboluzioak zehazteko eta, azken batean, hipotesiak aurkezteko, baina neurritz gora arriskatu gabe. *AIA* aldizkari eta batez ere *BRSVAP* izan zituen 50-60 hamarkadetan bere euskal filologia ikerketen agerbide. Mitxelenak *Textos arcáicos vascos* liburua atera zuelarik, hari eskaini zion kritika luzea da Ignazioren euskara-ikerikuntzaren lan paradigmaticoetako bat.

Euskal gramatikaren mesedetan 1959an argitarazi zuen *Euskera. Un poco de gramática y algo de morfología del verbo vasco* liburua, bilduma honetan ataltxo batez landa jasotzen ez dena, gure idazlearen lan goiztiar ederrenetarikoa eta ezagunenetarikoa bihurtu da, eta egia da berau dugula gure idazle oparo anitzari ohore egiten dioten obretariko bat, euskal hizkuntza gaietan haren zehaztasuna, zuhurtasuna eta argitasuna islatzen duten horietarikoa.

1967. urtea seinalagarria da Ignazio Omaetxebarriaren bizitzan. Erromara aldatuko da, Frantziskotar Ordenako Definitore jeneral izendatzen dutelarik. Eta han iraungo eta jardungo du 1983ko urtera arte, euskararekin zerikusirik ez duten arloetan, baina Frantziskotarren Ordenaren mesede handitan, gorengo kargu eta ardurak esku artean zerabiltzala. Osasunez makalik eta izandako zeregin ugariak nekatuta, Arantzazuko Frantziskotar Probintziara itzuliko da urte horretan, baina ez Euskal Herrira, Valladolideko San Antonio komentura baino. Han biziko da, 1995ean heriotzak hartuko duen arte.

Niri gaurkoan Omaetxebarria hizkuntza-ikertzailea aipatzea dagokit. Baina Paulo Agirrebaltzategi jaunak haren lanekin osatu dituen bilduma-liburuen eduki osoari begiratu arin bat egitea aski da, miretsirik gelditzeko haren lanerako ahalmenaz, idatz zaletasunaz, landutako gaien aniztasunaz eta, oro har, zein gai dela ere, ulerterraz, labur eta zorrotz garatzeko eta idazteko duen gaitasunaz.

Ohore Ignazio Omaetxebarriari. Zorionak, Paulo Agirrebaltzategi jauna, ordu askoren ondoren egin diguzun opari honegatik. Eta eskerrak halaber Jon Artza, Akademia honen argitalpen arduradunari.

Unas breves palabras en castellano en la presentación de esta recopilación de estudios y artículos sobre lingüística vasca, bajo el título genérico de *Euskara barrutik*, confeccionado por el laborioso Paulo Agirrebaltzategi y que publica nuestra Academia dentro de la colección “Euskaltzainak”.

Paulo Agirrebaltzategi me recuerda, por su nombre, a aquel pastorcillo, protagonista de la aparición de la Virgen en Aranzazu, *Errodrigotxu Baltzategiko*, y de numerosos romances tradicionales de tema religioso, que fueron minuciosamente estudiados por Ignacio Omaetxebarria en diferentes estudios, en los que confluían aspectos históricos, etnográficos, lingüísticos o religiosos.

Quiero añadir otra observación, de la que se ha hablado poco. Luis Villasante, el que fuera Presidente de la Academia Vasca y guerniqués como Omaetxebarria, fue básicamente discípulo de éste, y numerosas afirmaciones que vierte en su *Historia de la literatura vasca* tienen como fuente los estudios que previamente hiciera Ignacio Omaetxebarria en sus artículos.

Este volumen que presentamos revaloriza enormemente la producción lingüística del autor, que se hallaba diseminada en numerosas revistas, que reunidas y ordenadas, en su conjunto nos ayuda a valorar en su justa medida la gran labor investigadora que desarrolló don Ignacio en áreas como la diacronía e historia del euskara, antroponimia y toponimia, así como en la gramática y fonética vasca.

Adolfo Arejita

2016-05-28